

Eulia, sagua eta gizakia



Sagua, eulia eta gizakia

Jatorrizko izenburua: *La Souris, la Mouche et l'Homme*

Egilea: François Jacob

Itzultzailea: Juan Garzia

Argitaratze urtea: 2005

Argitaletxea: ZIO-EHU

MIKEL GARMENDIA

Bakterioak eta birusak aztertzetik euliak aztertzerá, eta hortik saguak aztertzerá; eta, ondoren, gizakiari aplikatzea. Horra, genetikaren bilakabidea. Aurreikuspenek ez dute balio, diosku Jakobek. Zientzia esperiméntazioa da eta gauzen egia bilatzea. Gauzen egia, bai, zeren begien bistan ditugun arren ez baititugu –gehienok– gure inguruan gertatzen diren mirariak ikusten. Hala, Jakobek aipatzen duenez, zeinen gauza arrunta zaigun oiloak arrautza jartzea, baina zeinen mirari handia den, egia esan, horretan pentsatzen jarrita.

Hala, Lewis Tomasén iradokizuna –Jakobek aipatua– aintzat hartuz, eragiten digun harridura-dosiaz neur daiteke lan baten interesa. Mirariak, harridura-dosiak... Nik –nire ezjakintasunean– hurbilago ikusten nituen "letren" mundutik, zientzien mundutik baino. Liburu hau irakurtzen hasi orduko kutsatuko digu, ordea, Jakobek jakin-nahia, zirikatzaile-lana egiten baitu, hau da, ez da soilik mugatzen genetikaren eta, oro har, zientziaren aurrerabidearen berri ematera; aurrerabidearen beraren eta zientziaren beraren zentzuaz eginarazten digu gogoeta. Hala, neurri batean edo bestean, denok barruan daramatzagun kezka eta beldurrak azalarazten dizkigu: aurrerabideak ez ote dizkigu munstroak ekarriko? Ez da, ordea, galdera hutsetan gelditzen Jacob. Busti egiten da. Gizakion arriskurik handiena jakintzaren garapena ez, baina ezjakintasuna dela esango digu, argi eta garbi.

Modu atsegina, gainera, Jakobek gogoeta eragiteko darabilena. Kontaera osoan zehar tartekatuko dizkigu bere bizitzako anekdota pertsonalak, Pasteur Institutuan ikerketakideekin eta ikasleekin bizitakoak, mitologia klasikoko erreferentziak (Hybrisa...), hainbat idazle eta pentsalari handiren aipuak (Konfuzio, Zola...). Are atseginago bihurtzen dute irakurketa umorez betetako hainbat ateraldik: euliak fama txarra izan du beti gizakiongan eta zientzian, aldiz, "vedette" baten gisan hartua izan da, Jakobek ikusarazten digunez.

Zientziaren aurrerabideari buruzko gogoetan, ez zaio xehetasunik batere eskapatzen. Hala ohartarazten gaitu nola garai batean zientzialariek banaka ikertzen zuten bitartean, zientziak azken aldian egindako aurrerapenek eta horren ondorioz sortutako iker-eremu gero eta korapilatsuagoak eraginda ziurrenik, oraintsutik honako ikerlariek binaka aritzen diren, eta are emaitzak ere binaka argitaratzen.

Hasiera batean gizaki kezkatuon betiko galderei (munduaren jatorria, giza izatearen zentzua, giza bizitzaren patua) nolabaiteko erantzuna ematera datorrela eman dezake liburu honek. Jakobek berak ezeztatuko digu, ordea, uste hori, galdera horien erantzunak poesia eta artearentzat uzten baititu. Azken batean, alabaina, oso gertu agerraraziko dizkigu elkarrengandik zientzialaria eta artista, batek irudimenetik errealitatetik baino gehixeago –eta alderantziz– edango du akaso, baina biak ditugu birsortzaile. Poetak geroari buruz egingo digu gogoeta. Jakobek ere bai. Bada, ordea, alde txiki bat: Jakobek jakin nahi luke zertan izango den mundua hemendik bostehun urtera, edo ehun urtera, edo hogeitau urtera.

Jakob eta bera bezalako zientzia-ikerlariak zintzo bezain temati aritzen zaizkigu gauzen egiaren bila. Zintzotasun eta tema berberaz egindako itzulpena dugu Juan Garziak ZIOren lehen ekarpen gisa eman diguna. Badu itzulpen-kontuek kezkatzen dituen edonork nondik edana eta zerikasi franko liburu honetan. Errazkerian erori gabe, euskal sena dario bertsio honi batetik eta, bestetik, testu motari dagokion idazkera landua, jaso, dotorea erakusten digu. Zorionak ZIOri erakutsitako ausardiarengatik eta eskainitako kalitatearengatik.